

TALAIAN

Pentsioak, bankuak eta gastu militarrek

ESPAINIAKO GOBERNUAK pentsioak balioz handituko ote dituen ez esateko estrategiak, eztabaida publikoa sortu du. Balioz handituko balu –KPIaren %1etik %3,5era dagoen diferentzia onartuz– 5.000 milioi euro gehiago ordaindu beharko lituzke. *El País* egunkaria balioa handitzearen kontra azaldu zen “Pentsioak KPIaren arabera balioz handitzea “hutsegitea litzateke” egunkariaren arabera: “Kostu hori –5.000 milioi euro– ezin delako onartu (...), egungo aurrekontu-egoeran kaltegarria litzateke hori aplikatzea”.

Ez gaude ados errotatiba madrildarrarekin. Milaka milioi euro injektatzen dizkiete bankuei; eta beste aurrekontu-sail batzuei, nahitaezkoak ez diren arren –gastu militarrena esaterako–, murrizketarik apenas egin dieten. Indar armatuen kopurua murriztea (130.000), Armagintza Programa Berezietako kontratu handiak ezeztatzea, I+G militarra ezabatzea eta Espainiako indar armatuek kanpoan duten presentzia gutxiagotzea. Horra neurri batzuk, 7.000 eta 8.000 milioi euro arte aurreztu eta pentsioen ordainketa bide onean jarriko luketenak, bai eta zorpetzetik eta defizit publikotik ateratzen lagunduko liguketenak ere. Onargariak al dira bankuei egindako diru-injekzioa eta gastu militar horiek?

Egoera berezian bageunde, bankuek eta militarrek eragiten dituzten gastuak murriztuz gero, seguru pentsiodunak prest leudekeela sakrifikatzeko. Baina hori egiten ez den bitartean, bidezkoa da pentsiodunek euren dena aldarrikatzea: pentsioak balioz handitzea aurreikusitako %3,5ean. ■

Juan Mari Arregi



BERO-BEROAN • TERMOMETROA

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Diputazioaren hizkuntza politika eta harrotutako hautsak

ARGIaren aurreko zenbakian, 2339.enean, Markel Olano Gipuzkoako batzarkide eta ahaldun nagusi ohiak hautsak harrotzeaz hitz egin zigun: “Euskaldun garenok egiten dugun irakurketa da komunikazioa euskara hutsean egiten duzunean hautsak harrotzen direla. Adibidez, prentsaurrekoan komunikazio alorreko profesionalari euskara hutsean egiten badiozu, harentzat eraso da, konturatzan da profesionalki zerbait falta zaiola”.

Bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak hizkuntza politikari dagokionez ezagutarazi dituen neurriek beste hainbeste eragin dute. Emandako pausoen zerrenda eta nolakotasuna luzea da –besteak beste, 49.234 gipuzkoarrek eta 643 enpresek Ogasunarekin euskara hutsean aritzeko eskaria egin dute–. Alabaina, beste behin bazterrak nahastu dira prentsaurrekoetan hizkuntzak nola landuko dituzten adierazi dutenean.

Aditu taldeak osatzen ez badu ere ETB2ko *Ni más ni menos* telebista saioko solasaldia, tertulian agerian geratu zen euskararen normali-


zazioa bakoitzak nahi duen bezala ulertzen duela. Has-teko, Claudio Landa aurkez-leak ez zuen gaia ondo azaldu: ez da gauza bera esatea Diputazioak hemendik aurrera prentsaurrekoak euskara hutsean egingo dituela erabaki duela, edo esatea prentsaurrekoetan euskarak izango duela lehen-tasuna eta euskara ulertzen ez duten kazetariak aldebereko itzulpen zerbitzua izango dutela. Lerdokeria ugari entzun genuen solaskide batzuen ahotik –prentsaurrekoetarako neurria *aldeana-datzat* jo zuen batek– eta beste batzuek ahal zutena egin zuten Diputazioaren erabakia babesteko. Gehien gustatu zitzaidana Muxikako Arkaitz izan zen, telefonoz bestaldetik, platoko tertuliakideek ez bezala, patxada galdu gabe eta errespetuz azalpen ederrak eman baitzituen. Sarri asko buru-bihotzetan daukaguna hitzez nola argumentatu asmatu ezinik ibiltzen gara, nahiz eta justizia eske gabiltzala jakitun izan, eta nahiz eta jakin eraso gupidagabea eta zentzugabea izango dela.

Soziolinguistika ikastaroen beharrea gaude.



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

